

## Pelikula



Nerea Ibarzabal  
KAZETARIA  
@ibarnere

**B**eldurrezko pelikulen alderik okerrera amaitzen diren unean iristen da, ondorengo orduetan eta datozen gauetan –batzuentzat behintzat–. Filma bera hazi bat ereitea baino ez da, gainerakoa zure buruak egingo baitu, askoz hobeto eta askoz erreago.

Horrela, pertsona ausartaren mozarroa erori eta komunetik logelarako ibilbidea korrika igarotzen harrapatuko duzu zeure burua, korridoreko argia piztuta. Ez duzu hankarik eta besorik izarapetik aterako, beroak itotzen egon arren. Armairuak itxiko dituzu eta, muturreko egoeretan, ohepean begiratuko duzu ea norbait dagoen, zeure buruari galdetuz ea kasualitatez norbait balego zer kristo egingo zenukeen.

Pelikula batek, gainera, aurretik ikusitako pelikula guztietako munstro eta hiltzaileez gogoraztea dakar, zure garuneko zimurren batean gorderik zeudenak, ustez desagertuta. Denak zeure gelan eta gaur gauean, baina biharamunerako inor ez; esnatu eta zure ausartaren mozarroak ea erotu ote zaren galdetuko dizu lurretik.

Gauza kuriozkoa baita beldurra. Beharrezkoa bai, baina gorrotagarria ere bai, batez ere iraunkor bilakatzen denean. Eta fikziotik sortutako beldurrak aldatzen bazaitu, errealitatean oinarritutakoarekin zer?

Komunetik logelara baino pausu bizkorragoan joan izan zara tabernatik etxera, pertsona ausar-

taren mozarroari gogor helduta kremailetatik. Orain ezin zaizu erori. Ez duzu eskurik poltsikoetatik atera nahi, batean telefonoa eta bestean giltzak dituzulako. Ohepera baino gehiagotan begiratzen duzu atzerantz kalean, zeure buruari galdetuz ea kasualitatez norbait balego zer kristo egingo zenukeen. Eta aurrez entzundako mila gertaera datozkizu gogora: parkekoa, poligonokoa, kotxekoa, jaietakoa... Denak zeure atzetik eta gaur gauean.

Eraso matxista bakoitzak mezu bat uzten digu, zirimiria bezala erortzen zaiguna autodefentsa tailerrez, manifestazioz eta ahalduntzez loditu dugun azalaren gainera. Beldurra da. Eta jakin arren kontrolerako mekanismo indartsuena dela, eta ez dagokigula guri hori sentitzea, eta bandoz aldatu beharra dagoela, hortxe jarraitzen du itsatsita. Eta gorroto dut hori kontrolatu ezina, nahiago nukeelako pentsatzea erotuta gaudela denok, armairuan inor ez dagoela dakigun bezala jakin salbu iritsiko garela etxera... Baina egunerokoak erakusten digu imajinatu ditugun egoera guztiak gerta daitezkeela edonoiz eta edonon.

Beste inorengan sinesten ez dudan honetan, beldurraren transformazioan sinetsiko dut, eta gure antolatzeke gaitasunean, eskuz eta hortzez defendatzeko geureganatu ditugun eremu guztiak. Pausorik ez atzera. ■

## Lurrin kirastuak



Leire Narbaiza  
Arizmendi  
IRAKASLEA  
@txargain

**T**elebista isiotu dudan bakoitzean, lurrin iragarkiak ikusi ditut, zientoka. Pentsatzen hasita nago hatsa dariola gabiltzala, hainbeste perfumatu beharra badugu. Baina era berean, spot horiek ez dute usaimenik irudikatzen. Gaitza da, bai, usainak (edozein) pantaila zeharkatzea, baina flasko zoragarri horiekin beste promesa batzuk iradokitzen dizkigutela-koan nago: edertasuna, erromantzea eta sexua.

Nerabezaroan bazen kolonia eslogan bat: tanta bat, musu bat. Sasoi zoro hartan, maitasun guran, azal gazteotan tanta bat isuri ez ezik, txorrostada batez blai irteten ginen kalera. Itzuli, ostera, promesak huts eginda.

Edertasuna ere agintzen digute iragarkiak. Gazte eta absolutua. Zaharrek ez dute perfumatzeke beharrik, hodeiek bezala ez ei dute usainik.

Baina ez dut ulertzen lurrin enpresa hauek zelan tematzen diren kolonia bakoitza norendako den zehazten. Beti emakume ala gizon. Genero muga oso markatua, usain ona gizarte-rola eraikitzerako orduan, beste adreilu funtsezko bat balitz lez. Arroza ala urdina. Tartekorik inoiz ez.

Sexu promesa ere oso determinatua. Neska gazte eder gelbera, mutil gazte eder bulartsua. Betikoa. Hemen ere tarteko edo bariataterik ez!

Lurrin kirastuen promesa hutsalak. ■